

2020ko errenta kanpainak argi utzi du Arabako gizarteak aurrera egin duela bere digitalizazio prozesuan

Kanpainan zehar 40.000 BAK gako berri baino gehiago aktibatu dira, eta aurreko urtearekin alderatuta laukoiztu egin da Arabako ogasunaren Egoitza Elektronikoan egiaztatu, aldatu (hala badagokio) eta onartutako Rentafácil proposamenen kopurua

Aurkeztutako aitorpenen % 71 Arabako ogasuneko zerbitzuek egin dituzte. Gasteizko, Laudioko eta Guardiako bulegoetan ia 39.000 aitorpen egin dira aurrez aurre.

Gasteiz, 2021eko abuztuaren 2a. Itziar Gonzalo Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako foru diputatuak gaur egindako prentsaurrekoan nabarmendu du zer balantze egin den 2020ko errenta kanpainaren gainean, Arabako gizarteak gero eta gehiago jotzen duela digitalizaziora foru ogasunarekin daukan harremanean eta zer ahalegin egin den COVID garaian gaitasun teknologikorik ez dutenei eta beren aitorpenak egiteko aurrez aurreko arreta behar dutenei arreta emateko.

“Esan dezakegun onena da kanpaina normaltasun osoz egin dela, eta hori ez da erraza pandemia garaietan. Laguntza tresna berriek erakutsi dute Arabako gizarteak gero eta gehiago erabiltzen duela Egoitza Elektronikoa ogasunarekin duen harremanean, baina, aldi berean, datuek diote oraindik ere jende askok behar duela aurrez aurreko arreta bulegoetan aitorpena egiteko”, laburbildu du Itziar Gonzalok.

2020ko errentaren balantze ekonomikoa

2020ko kanpainan, 180.876 aitorpen aurkeztu dira guztira, haietatik 89.370 Rentafácil-en bidez; 38.959 Gasteiz, Laudio eta Guardiako bulegoetan egin dira; 36.605 gestorien bidez aurkeztu dira, eta 15.942 Egoitza Elektronikoan bete dira.

Aurkeztutako aitorpen guztietatik, 114.575 itzultzeko atera dira: 115,8 milioi euro guztira, eta 1.011 euro batez beste. Bestalde, 56.990 aitorpen atera dira foru ogasunaren alde sartzeko; 104,6 milioi euro guztira, eta 1.835 euro sartu dira batez beste. Emaitza garbia 11,5 milioi euro da.

2020ko errenta: kanpaina digitalena

2020ko errentaren balantzea aurkeztean, foru diputatuak nabarmendu duenez "Arabako ogasunaren historiako kanpainarik digitalena izan da. Urtero saiatzen gara herritarrek Ogasunarekin duten harremana sustatzen eta errazten Egoitza Elektronikoaren bidez, eta, horretarako, tresna eta tutorialak jartzen ditugu haien eskura", azaldu du Itziar Gonzalok.

Bi datuk berresten dute foru diputatuaren balorazioa: alde batetik, aurten laukoiztu egin da Egoitza Elektronikoan egiaztatu, aldatu (hala badagokio) eta onartutako aitorten kopurua (% 30 Rentafácil-en bidez), iaz 9.932 aitorten egin baitziren eta aurten 40.904 egin baitira. Bestalde, kanpainan zehar, 40.448 BAK gako aktibatu dira Arabako ogasunaren Egoitza Elektronikoan sartzeko.

Arabako gizartea digitalizazioan aurrera egiten ari dela baieztatzen duen beste elementu bat da ohiko etxebizitzaren alokairuaren kenkaria edo alokairuaren errentamenduaren etekinak sartuta Egoitza Elektronikoan aldatu den proposamen kopurua, 3.884 izan baitira. Amaitu berri den kanpaina izan da lehenengoa alokairu erregimenean bizi diren eta etxebizitzak errentamenduan izateagatik diru sarrerak dituzten pertsonen aitortenak Rentafácil-en sartu direna.

Zerbitzua COVID garaian

Errentaren kanpainan zehar, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak bere zerbitzua indartu du zailtasun digitalak dituzten zergadunei aurrez aurre zein telefonoz arreta emateko, eta 38.959 pertsonari eman die arreta. Pertsona horiek Gasteizko, Laudio eta Guardiako foru ogasunen bulegoetan egin ahal izan dituzte aitortenak.

Aurrez aurreko arreta eman da edukiera murriztuta eta osasun egoerak eskatzen zituen baldintzetan, eta, horretarako, 29 arreta postu izan dira. 25 Gasteizen, 3 Laudion eta 1 Guardian.

Beste datu batzuk

- Lan etekinen diru sarrerak, hau da, besteren kontura lan egiten duten pertsonenak, % 0,62 igo dira.
- Jarduera ekonomikoen etekinen, autonomoen eta profesionalen diru sarrerak % 9,62 jaitsi dira.
- Dibidenduak banatzeagatik, diru sarrerak % 35,72 jaitsi dira.
- Errentamenduaren diru sarrerak % 5,64 igo dira.
- Pentsio planetarako eta BGAEetarako ekarpenak % 3,85 igo dira.